

## JAUNAREN BATEOA - B

### Sarrerako oharra

Anai-arrebok: gaur emongo deutsagu amaierea Gabon aldiari, Jesusen bateoa ospatuz. Ebanjelioan entzungo dogunez, Espiritua bere gainera jaitsiko da eta Aitak hots egingo dau: "Hauxe da nire Semea, nire maitea, nire kutuna".

Kristinau lez, Jesusei entzun eta begiratu behar deutsagu, Bera dalako Jaungoikoaren irudia eta ahotsa, sekula amestu be egingo ez gendukezan zerumugak zabaltzen deuskuzana.

Abestuz ekingo deutsagu ospakizunari.

### Sarrerako abestia

### Abadearen agurra

**Jesukristo, Aitaren Seme maitea, zuekin.**

### Uraz txipriztindu

**Egin deiogun otoitz Jaungoiko gure Aitari, gure bateoa gogoratzuz, isuriko jakun ur hau bedeinkatu daian. Barritu gaizala, gainera, barrutik eta leial iraun daigula jaso dogun Espirituagan.**

*Isilunea otoitz egiteko.*

Jaungoiko on eta errukitsua, Bateoan, biziaren iturri eta garbikuntzarako bitartekoa dan uraren bidez pekatutik garbitu ginduzuzan eta betiko biziaren doea emon; + bedeinkatu eizu ur hau,

zeuri eskainitako egun honetan, zeure babesaren adierazle izan daiten, Jauna. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

*Abadeak ihiztailua hartu, bere burua txipriztindu eta, ondoren, batzarra txipriztinduko dau. Bitartean, kantu egokiren bat abestu. Azkenean, hauxe esango dau:*

Jaungoiko Ahalguztidunak pekatutik garbitu gaizala eta, eukaristia honen ospakizunaren bitartez, bere Erreinuko banketeko partaide egin gaizala.  
**E/ Amén.**

*Edo damu otoitza:*

**Ospakizunaren hasieran, onartu daiguzan Jaunaren parkamena eta errukia.**

– Herri guztientzako argia zarana. Erruki, Jauna.

– Pobreen eta sufritzen dagozanen babesa zarana. Kristo, erruki.

– Biziaren eta itxaropenaren iturria zarana. Erruki, Jauna.

### Oharra irakurgaiei (lehenengo aukera)

Lehenengo irakurria, erbestaldiaren amaiera eta Israelen berreraikuntza hots egiten dau profeteak. Era berean, Morroiak, Aukeratuak burutuko dauan misinoa iragarten dau.

Egia esan, Babiloniara erbesteratutakoak, Israelera bizkor itzultzea itxaroten ebenez, adore barik eta herri-minez beteta egozan.

Pedro apostoluak, bigarren irakurria, on eginez eta zapalduen arintasuna eroanez aurkezten dau Jesus.

Kristoren gizatasuna da Jaungoikoaren ontasunaren eta maitasunaren adierazpenik gorena.

### **Jaungoikoaren herriaren otoitza**

**Jesukristo Aitaren Seme maitegan bat eginda, aurkeztu deioguzan gure otoitzak Jaungoikoari.**

1. Eleizeak, Bateoaren sakramentuaren bidez, mundu zuzen eta baketsua eraikitzeke fede eta eskaintzazko bizitza suspertu daian. Eskatu deiogun Jaunari.
2. Bateo eta Familia pastoraltzan jarduten dabeneke, kristinai familiak Eleizaren misinoan arduratsu esku-hartu behar dauala agertzera emon daiela. Eskatu deiogun Jaunari.
3. Aitek eta amek erantzukizunez eta askatasunez eskatu daiela bateoa euren seme-alabentzat eta honeek fedean hezteko konpromisoa hartu daiela. Eskatu deiogun Jaunari.
4. Eleizako kide egin ginduzan Bateoa eguneroko bizitzan gogoratu eta bizi daigula, Ebanjelioaren iragarpena geure eginez. Eskatu deiogun Jaunari.

**Jaungoiko Jauna, entzun gure otoitza eta emon zure Espiritua, zure borondatea betez bizi gaitez. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.**

### **Abadearen agurra (bedeinkapenaren ostean)**

**Gabon aldia gogoratu eta bizi izan dogun guztiak munduan Jaungoikoaren seme eta alaba lez bizitzera eroan behar gaitu, danen zerbitzari izanez, baxotxa bere bokazinetik.**

**Zoaze Jaunaren bakean!**

**Egun honetarako gogoeta**

“Jainkoa gurekin” ikusi dogu. Gabon egun honeetan hauxe ospatu dogu: Jainkoa bidelagun dogula.

Gabon aldia amaitzeko, Jainkoak Berak aurkezten deusku Jesus: *“Hauxe da nire Seme maitea; entzun eiozue”*. Onartzeko eta hari entzuteko gonbitea egiten jaku; Jesus dogu Jainkoaganako bidea dakien bakarra.

Jordanen bateatua dan Jesusek, -bere ekintzekin eta hitzekin- egiazko bidea erakutsiko deusku. Adi egon gaitezán!